

Gabonetako zorion-agurrak

Gabonetako jaiak dirala ta, zorion agurrak ugari izan dira. Neuk bere izan dodaz, eta baten, eskari lez, inñuan... «Errientzat bakea».

Gauza zantarrak ikusten doguz, azkenengoc aldi onetan, Orre-gaitik, nik, galeratzeko ezer egin ezin dodalako, neure biotza erdi lo euki gura dot, ezer ikusi eztagian. Baiña *Erria* entzuten dodanean itxartuten jat; zauria ukututen daust eta urduri geratzen naz.

Bakea opalduten dauste. Ez da gauza ona?

Ia berrogei urtetan izan dogu bakea. Jauntxokerien bakea, zalparkerien bakea ildegiko bakea...

Jauntxokeria, errian, zantarkerien ernemiña. Zenbat eta luziagoa zapalkeia, zantarkeri gorragea. Gogoa galduta, odolaz gauzak konpondu gura.

Au, antziñako jakintsuak, aurkitu ta agertu euskuen (Platón).

Jaungoikuaren legea ausita, gaztakeria egiten dabenak, txarto egiten dabe; baiña oneixek dira ernemiñetik azitako landarak.

Erderaz esaten dabe: «Aizia ereinten daunak, ekatzak bildu».

Atzo, Josu'ren Ugutzia, Isaias'en eresiak irakurri euskuezan:

Bera'gan ipiñi dot neure gogoa
ERRIEN ESKUBIDEA EKARTEKO...

...Nik deitu dot, giltzapian dagozanak askatzeko...

Neure erri gaixua! Jauna'gana itzuli zaitez!

Alperrik egiten dau bearra argiñak, etxegitean, Jauna'k beragaz ez ba'dau eraikiten.

Alperrik begiratzen dau er-tzañak, Jauna'k beragaz ez ba'dau zaintzen.

Jauna emon bakea, zure bakea; askatasunaz eta zuzentasunaz datorran bakea!

EZ AUSI IRUDIA!

*Kutxa baten gordeta, dagoz argazkiak.
An gagoz gu, gaztiak, alai ta bizkorrak.
Asko batu giñuen, mendian, jai atan,
Aberria goraltzen, danak jeltzaliak.*

*Eztozu inñoz ikusi, erreka uretan,
Zeru, zugatzak, lorak, baita arpegiak
Irri-barreka, antxe, danak irudian?
Arri bat jaurti ezkerero, milla zati einda,
Irudi atsegingarri, ayenatuten da.*

*Mendian jayoriko ura, iturritxuan,
Garbi-gardena, pozik, arririk arrira,*

*Kantari jatsiten da. Uñak, txikitxubak,
Alkarrekin batuta, duaz itxasorantz.
Atxa biden erdian: urak, albueta
Aldenduta, eiten dabe, barrero bidia.*

*Bidia eginda gero, itxaso aurrian,
Aurkituten ba'dira, une baten... Tamal!
Zelan dago ain loituta? Dana da bustiña!*

*Urriak igarota, ezkara ikusi alkar...
Orain? Nik eztot gura!
Buruko kutxatxuban, da gomuta alaya.
Orain alkartu? Arria!*

Ez ausi irudia...

UTARSUS